

Proiekturako behar izango ditugun bazkideak hurrengoak dira: hornitzaileak, zaborrontziak osatzen dituzten zati bakoitza sortzeko eta banatzaileak osagai bakoitza gure biltegira ekartzeko. Horretaz gain, langileak beharko ditugu parte guztiak batera jarritz amaiarako produktua osatzeko. Azkenik, gure produktua gure bezeroei eramateko beste banaketa enpresa bat erabiliko dugu.

Horien guztien beharra izango dugu gure proiektua aurrera eramateko; izan ere, beraiek behar dugun guztia ekarri eta leku gehiagora heltzeko aukera emango digute. Gainera, hornitzaileekin komunikazioa ona badugu, arazoak izatekotan, errazagoa gerta dakiguke horiek konpontzea.